

## **REFRANES Y SENTENCIAS: ZENBAIT BALIABIDE MNEMOTEKNIKO**

*Durango, 1996-XII-06*

*Juan Mari Lekuona*

Mintzaldi honen helburua da: lehenik, atsotitzak, “zahar hitzak” eta “zuhur hitzak” esango genukeena Oihenarten esaldi bat erabiliz, ahozkotasunaren alderdi batetik ikustea, hots, artifizio erritmikoaren aldetik; eta bigarren, artifizio horren zenbait baliabide markatzea, memoriaren euskarri direnak eta atsotitzen estilistika markatzen dutenak. Bestalde, txosten honen zeregina da, Herri-Literatura azpi-batzordearen eginkizunari atxikiz, ahozkotasunaren eta literaturtasunaren alderdia kontuan hartzea, batzordearen egitekoari —puntualki beberen— arreta jarritz.

### **1. Artifizio erritmikoa**

Ahozkoari artean oso gogoan hartutako alderdia da hau, osagai hauetan finkatzen delarik: puntua, erritmoa, kantua eta gorputz-espresioa. Jakinaenez, osagai hauek zuzenean zerikusia dute literatur testuaren iraupenarekin, pieza gal ez dadin; eta zeresanik ez literatur ereduaren edertze eta estetizazioarekin.

Testuari iraingailuak ezartzea bezala litzateke artifizio erritmiko hori. Osagai horiek bereziki poesian dira horrela. Baina atsotizetan berez eta nahitaez, ez dagoenez ez doinurik eta ez balantzerik, aipagarriak zinez, horiez gainera, figurak, tropoak, morfo-sintasia eta estilistika arloa orokorki hartua. Hitzaren efektu iraukorrak oroitzen. Arrazoi pedagogikoak ere egon daitezke artifizio erritmiko horri arreta jarri diezaiozun. Denok ditugu gogoan atsotitzen egitura neurtuak. Baina ez hori bakarrik. Hor daude bertsoaren gorputz-tutako dotrinak, matematika erregelak ikasteko kantenak, kontaeretan finkaturiko formula paralelistiko beti berdinak, bertsoaren emaniko legeak, erromantzeen lelo-kantuak (ez ahantz erretratu errepika dela, estribilloa), eta poesia epikoa bera ere, bertsoaren paratua oroitzen hobeto gorde dezaten herritarrek. Hitz baten, herri mailako artelariak —bertsolariak, kantariak, ditxolariak, eta abarrek— darabilten eskola apodiktikoa, idatzizko estiloan ere liburu sapientzial jakingarriak sortarazi dituenak (1).

---

(1) J.M. LEKUONA, *Ahozko euskal literatura*, Erein, Donostia, 1982, 28-29 or.

## 2. Paremia eta mnemoteknia

Jean Haritschelharrek, bere lan interesgarri batean, "Paremiologia eta mnemoteknia" izenekoan, beste oharkizunen artean, jasotzen du Oihenartek Aristotelari buruz dioena, *buruz gorde ahal izateko asmatuak eta antolatuak izan direla esaera zaharrak, bere egituraren arabera* (2). Eta hori eransten dio gainera *egiaz irakaspen bat dakartela esaera zaharrek, eta horrengatik gai direla gogoan hartuak izan daitezzen; baina badituztela ere alderdi formalen aldetik dohain eta gaitasunak oroit-erazak izateko* (3).

Aristotelek dioenarekin jarraituz, esaten digu, besteak beste, esaera zaharrek gorde izan direla laburrak eta atseginak direlako. Eta bi alderdi horiek hartzen ditu, (laburrak eta atseginak izatea) azterbidetzat, atsoitzak arakatzeko. Guk geuk orpoz-orpo jarraitzen ez badiogu ere eskema honi, funtsean beti agertuko zaigu eta ikuspegi egokia emango ere digu, gure azterketaren hari nagusiak hasieratik gogoan izan ditzagun.

## 3. Esaera zaharren deskripzio orokorra

Definizio moduko bat ematea ezinbestekotzat jotzen dugu lan honetan; definizioa ez bada ere, deskripzio xehe bat behintzat, gure urratsok bideratuko dituena.

Esaera zaharrak, aforismo eittea duten esaldi laburrak dira, estilo bereziz markatuak eta erabilera jakina dutenak bai eguneroko mintzairan, bai ahozko estilo jasoagoan, bai idatzizko estiloan.

Aforismo eittea esatean zera dugu gogoan: esaldi laburra, gehienetan jakinduri ideia bat daramana edota gogoeta etiko-estetiko bat.

Estilo berezia aipatzean, esan nahi dugu baliabide literario jakinak erabiliz mamitua dela, batez ere nabarmentzen direlarik baliabide metrikoak, erretorikoak, morfo-sintaktikoak; eta produktu hori ulertteraza ezezik erabilerraza ere badela, bai mezua igortzerakoan, bai hartzerakoan.

Esan nahi dugu estilo baloratibo baten adierazgarri direla, eta poesia gnomoikaren zati, literatur espresioaren formarik zaharrenetakoa, kultura guztietan eman ohi dena.

Erabilerari begira esan dezakegu, esaera zahar horien lekua poeman, nahiz ipuinan eta gainerako generoen azkencan dela; baina ez da harrizkoa hasieran

(2) J. HARITSCHELHAR, "Parémiologie et mnémotechnique. L'exemple basque", *Bulletin du Musée Basque*, 133 (1992), 49-66 or.

(3) A. OIHENART, *Les proverbes Basques*, Facsimile de la edición de 1657, Tirada aparte de RIEV 26 (1929) eta 27 (1930).

edota erdialdean aurkitzen badira, sententzien erabilerari atxikiz. Epifonemak direla bertsozintzan, bereziki bertsoaritzan, bakarkako bizipena orokor bihurtuz, enfasi batez diskurtsu poetikoa bukatzen dela. Gauza bera gertatzen da esaera zaharra ipuin baten erremate sententziduna gertatzen denean ere: *gizona beti gizon, saskitik ere*, esaldi ezaguna, aurretik ipuin batez argitzen dena, eta esanahia eta erabilgarritasuna ematen diona, eta epifonemaren enfasia. Eta erabiltzen dira solasaldi arruntean, mintzaldiaren apaingarri gertatuz; eta balio dute norbaiti sinestarazteko, eta irakaskuntza asko gordetzen dituzte gure bizitzan nola portatu jakin dezagun.

Beraz aforismo eitte hori, estilo berezia eta erabilera jakina kontuan eduki beharrezko alderdiak dira gure txosten honen helburua tajuz beteko bada.

#### 4. Baliabide mnemotekniko nagusienak

Txosten mailakoa denez nire ekarria, lehenengo 50 *zahar hitzak eta zuhur hitzak* hartu ditut aztergai. Eta liburuko testua bere osoan aztertzen ez bada ere (4), laginak erakus-aukera bat ematen digu, gure helburuak nahiko ongi betetzen dituen, eta ikuspegi ohargarria eskaintzen duena.

Lehenik puntua dago, artificio erritmikoan hain garrantzizkoa dena. Bere egitekoa gehiago zehaztu dezagun. Esaldien klitxeak gauzatzen ditu. Esaldien formula paralelistikoak markatzen. Hitzen tratamendu egokiena ateratzen eta erabiltzen. Errealitatea hotsez adierazten. Kontrastearen aldeak markatzen. Errealitatea dakarren hitzak, portaera ere errimaz finkatzen, baita balioztatzen ere. Beraz puntua, formaren eta edukinaren akordagarri baliotsua dugu.

Bigarrenik, erritmoa aipatu behar, etenaldien jokoak, silaben kopuru jakina; doinu prosodikoaren gorako multzo-silabikoak eta behekoak; bertso-lerroen berdintasun fonikoa edota antzekoa; esaldiaren osotasuna buruz jasotzeko hain lagungarri ona.

Hirugarrenik, figura erretorikoak aipatu behar, batez ere ohikoenak. Hauek, espresio argia eta espresio ederra ezezik —poetikari dagokionez—, esaldiko osagaien egituraketa dakarte, osagai horiek ongi aukeratuz, ongi kontrajarrituz, ongi metatuz, ongi mailakatuz. Eta hori guztia oso garrantzizkoa da, memoriari lagundu nahi bazaio, euskarririk eman nahi bazaio eta iraungailurik, esaldien zergatia eta helburua adierazten dutelako eta gorpuzten.

Tropoak ere aipagarriak dira zinez: metaforizazio asko erabiltzen da, etika zein estetika, naturan eta giza industrian oinarritua eskaintzen denez. Irudi ordezkarriak daude, gero irudi fokala erakusten digutenak. Eta xehekiago gauzak

(4) J. URQUIJO, *Refranero vasco. Los Refranes y Sentencias de 1596*, Colec. Auñamendi, 40 eta 56 aleak, Donostia, 1964 eta 1967.

aurkeztuz, asko ageri da konparaketen erabilera ere. Irudietan naturatik bizitzarako transposizioak maisuki eginez. Hau da pentsamoldea: nola naturan, hala berean giza bizitzan, giza legean, jendetasunean. Adibideen erakusbide jakin eta eraginkorra.

Morfo-sintasia mailakoak ere ezin dira ahaztu. Askotan esaldien morfo-sintasian gauzatzen delarik figura erretorikoen oinarria. Irudi luke badutela elkarrekin zerikusi esaldien morfo-sintasiak eta figuraren nolakotasunak. Hala nola disjunktibean bereizketa, kontsekutibean logika eta kausalitatea, kontzesibean erretorika mintzakideari berea aitortuz, eta norberarena areagotuz. Baldintzazkoen xehetasuna, errealismoa, logika. Hitz batean, perpausen esanahiak areagotzen du gogoan gordetzekoaren finkagarritasuna, heldugailua; memorian ezartzeko indar psikologikoa, atsoitzetan bere eragin jakina duen egitura gramatikazkoa.

## 5. Eredu aipagarrienak sailean

5.1. *Izenak izana darama*: sail honetakoak aipatuko nituzke lehenik.

- 88: O laso, / gitxi batzuk i-lako (5)
- 92: Zelangoa da Butroe / orok dakie
- 270: Muxika / arerioakaz agika
- 284: Aramaio / dabenak ez lemaio
- 386: Albia / deunga dustien abia

5.2. *Erritmoa gogoan*

- 17: Buruko andia / ta jate urria, 6+6 silabez
- 22: Zaarrago, / ikaskurago. Bi osagaiz tajutua, 4+5 silabez
- 11: Baratzea ta usategi / aberasgarri. Hiru osagaiz, 8+5 silabez
- 4: Abenduko lañoa / euria edo egoa, 7+8 silabez
- 10: Aspertu banekio / asper lekiket, 7+5 silabez
- 14: Egia latz / ta labio, 4+4 silabez
- 26: Agura onari / ez atea itxi, 6+6 silabez

---

(5) ID., *ibid.* Atsoitz bakoitzaren aurrean bildumako zenbakia jartzen dugu, bertako ortografia errespetatuz.

- 31: Az adinon / ta aza on, 4+4 silabez
- 32: Anbiolako supitak / egiak, 8+3 silabez
- 45: Laarrik / ez onik, 3+3 silabez
- 46: Ustrail onak / ardao ona, 4+4 silabez
- 8: Beien erroa jatxiago, / luzeago, 9+4 silabez
- 28: Dagenileko euria / ardao ta ezta, 8+8 silabez.

### 5.3. *Figura erretorikoak gogoan: osagaien egituraketa markatuz*

#### 5.3.1. *Metaketak*

- 3: Aberatsok jaia daude /txiro gaisook beti neke  
Auzook bere igui daude / beti dabilena eske
- 39: Txitak / grisolak ta urdaya / Maiatzeko maira.
- 43: Maiatz iluna ta bagil argia / urte guztiko ogia
- 48: Farata asko kalean / audiaka ebiltan dira ta ogiari leioe jira

#### 5.3.2. *Kontrasteak*

- 17: Buruko andia / ta jate urria
- 36: Zeeikek maurtuti oanean / eder eztanik kalean
- 37: Kaden txarriak / aretx ohea irunsi
- 41: Nekearen ostean poza
- 42: Mutil onak buruan zauri / gaiztoak bernazakian

#### 5.3.3. *Mailaketak: batez ere aditz jokoak aipatzen ditugu*

- 10: Aspertu banekio / asper lekiket
- 31: Az adinon / ta aza on
- 40: Naiago dot to bat / ze amabi emon deiat
- 49: Trankart egiten deustak / ta ulerretan deuskat

### 5.4. *Tropoak*

#### 5.4.1. *Konparaketak: konparaketak egiteko klitxe ohituenak*

- 2: Aberats izatea baño / ospe ona obeago
- 7: Biotza ta zentzuna gudian dira bearrago / iskilluak baño

- 8: Beien erroa jatxiago, luzeago
- 20: Zelan baista oiala / alakoa mendela
- 22: Zaarrago / ikasgurago
- 29: Aldi txaburra lasterra bada / egun astia baño obe da
- 30: Adinona / larra baño obe da
- 35: Zelangoa baista amea / alangoa oi da alabea

#### 5.4.2. *Ironia*

- 50: Tilista aroan amabost urte det

#### 5.4.3. *Galderak*

- 21: Zitel zirola / nok gudura aroa

Lagin hau osoagoa izan zitekeen, adibide aukeratuagoak eskaintzeko erosotasunez, baina txosten honen egitekoa mugatua zen: literatur alderdia azpimarratzea, azterbideak aurkeztea, dei bat egitea, gaiaren jakingarritasunaz eta ederraz ohartarazteko. Ekarki eskematiko bat euskal paremiologiaren ezagutzarako. Eta hau da egin duguna.

### 6. **Azkena**

Aristoteli hitza hartuz, Oihenartek aipatzen digu, esaera zaharrak hondamendi batetik geratu ziren pusketak zirela, hautsi-abartza baten hondakinak.

Esplikazio leiendistiko honek, antzeko espresioek bezalaxe, egiazko gihar bat badute, beste eraikuntza literarioen pareta zahar dira, edo hobeto esan, bitxi bereizi eta baliotsuak, hala nola aztarnategietan agertzen diren zutabeak, artxi-boltak, brinbalak, leihoteriak nahi duzuen eratako pusketa biziak. Berez, literaturzale batentzat, atsotitzak ipuin baten erremate izan daitezke, bertso baten epifonema, liburu sapientzial baten pusketa eta abar.

Esaera zaharrei dagokienez, esan daiteke, iluntasunak badituztela, agian formula ez zehatzak ere bai; testu idekiak ere badirela, lehendik datozen gauzak, baina zuzeneko erabilerak —argiaren eta bizitasunaren amorez— uki daitezkeenak, osagarri eta erabilgarri.

Atsotitzen testiguak eta lekukoak, ez du zertan estilista izan eta zentzu garatua eduki formulak osatzean eta erabiltzean. Horregatik aldaerak, zalantzak, “okerrak”, herriaren ahotan. Eta erabilera jantziagoa ere bai lekuko hoberenen artean.

Uste dut arlo hau ere kontuan hartzekoa dela, mintzoa literatura ere badenez, batez ere gaurkoa betikoarekin lotu nahi denean. Eta atsotitzek ezinbesteko garrantzia dute mintzoari aforismo eittea eman nahi zaionean, eitte sapientzial eta gnomiko bat.